

PARTAIDETZA OINARRIAK

GABONETAKO XI ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

1. Lehiaketako apainketarako gaia **GABONAK** dira.
2. **Lehiaketa 2018ko abenduaren 1etik 2019ko urtarrilaren 5era arte izango da.**
3. **Parte hartzeko aukera Donostia hiriko merkataritza saltoki guztiek dute, ostalaritza eta hotelak, eta hiriko zerbitzuak.**
4. **Izen-ematea doakoa da.**
5. Lehiaketan **izen emateko epea abenduaren 5ean, azteazkenea amaitzen da, 14:00tan.** Inskribapena San Sebastian Shops bitartez egingo da: ☎ 943 090938/39 edo emailaz: info@sansebastianshops.com.
6. Erakusleihoak **abenduaren 7ean PREST eduki behar dira, kategoria guztietara aurkeztu nahi izanez gero. Epe horretarako prest ez dauden erakusleihoak lehiaketatik kanpo geratuko dira.**
7. **San Sebastian Shops-ek banatutako idulki batekin identifikatuko dira eta lehiaketa osoan zehar, mantendu egin beharko dira.**
8. Erakusleiho parte-hartzaileek baldintza MINIMO hauek bete behar dituzte:
 - a) Derrigorrezkoa da **erakusleihoan salmentan dauden produktuak agertzea.**
 - b) **Merkatariak muntaian parte hartze zuzena** izan behar du.
 - c) Beste urteetan aurkeztutako muntaiak ezingo dira aurkeztu, muntaia beste saltoki batek aurkeztu arren.

Asociaciones Integrantes

9. **Parte hartzen** duen saltokiak erakusleihoaren argazki bat eta bideo bat (aukerakoa, 30 segundo gehienez) bidaliko du, hurrengo ezaugarriekin:

a) ARGAZKIAK

- Flash gabe aterako dira eta pertsiana gabe. (ez da erakusleihoaren erreflexua ikusi behar.)
- Saltokiaren izenarekin identifikatu behar da.
- Argazkia posizio horizontalean atera behar da.
- Argazkia JPG formatua izango da

b) BIDEOAN (Aukerakoa), hurrengo informazioa azalduko da:

- Erakusleihoaren gaia.
- Zein izan den inspirazioa
- Zer transmititu nahi izan du edo zergatik muntatu du erakusleiho.

Informazio hau idatziz bidali behar da, San Sebastian Shops-eko web-an saltokia promozionatzeko eta erakusleihoaren argazkiekin edo lehenago bakarrik bidali ahal izango da.

10. Eskatutako informazio guztia info@sansebastianshops.com-era bidaliko da.

- **“ERAKUSLEIHO POPULARRAREN” kategorian sartzeko argazkien bidalketa data, abenduaren 9, igandera arte izango da, 00:00tan beranduenez.** AHOLKUA: Online eta prentsako publizitatean jartzeko, informazio guztia lehenbailehen bidaltzea gomendatzen da.
- **Beste kategoriatan sartzeko “ERAKUSLEIHO JASANGARRIA”, “ERAKUSLEIHO BERRITZAILEA” eta “AUZOKO AIPAMENAK” azken bidalketa data abenduak 13 izango da, osteguna 18:00ak arte.** AHOLKUA: Online eta prentsako publizitatean jartzeko, informazio guztia lehenbailehen bidaltzea gomendatzen da.



Asociaciones Integrantes

GARRANTZITSUA: Egun horietarako bidalketa egin ez dutenak, lehiaketatik **KANPO** geratuko dira.

11. Lehiaketaren **KATEGORIAK** eta dagozkien **SARIAK** honakoak dira:

A KATEGORIA: Merkataritza establezimenduak:

- 1.-ERAKUSLEIHO JASANGARRIA: GESTIO JASANGARRIAREN IKERLANA
- 2.-ERAKUSLEIHO BERRITZAILEA: URTEKO ERAKUSLEIHOAREN ZERBITZUA
- 3.-ERASKULEIHO POPULARRA: IRRATI LOKALEN KOMUNIKAZIO KANPAINA
- 4.-MODAREN AIPAMEN BEREZIA: Donostia- San sebastián Modak babestua. Modan komunikazio digitaleko estrategia.
- 5.-SORMENEZKO ERAKUSLEIHOA: CEINPROk babestua. Poduktu grafiko-multimediaren garapena.

B KATEGORIA: Ostalaritza establezimenduak:

- 1.-ERAKUSLEIHO JASANGARRIA: GESTIO JASANGARRIAREN IKERLANA
- 2.-ERAKUSLEIHO BERRITZAILEA: URTEKO ERAKUSLEIHOAREN ZERBITZUA
- 3.-ERASKULEIHO POPULARRA: IRRATI LOKALEN KOMUNIKAZIO KANPAINA

C KATEGORIA: Hotelak:

- 1.-ERAKUSLEIHO JASANGARRIA: GESTIO JASANGARRIAREN IKERLANA
- 2.-ERAKUSLEIHO BERRITZAILEA: URTEKO ERAKUSLEIHOAREN ZERBITZUA
- 3.-ERASKULEIHO POPULARRA: IRRATI LOKALEN KOMUNIKAZIO KANPAINA

Gainera, **aipamen bereziak** auzo parte-hartzaile bakoitzaren erakusleio esanguratsuenentzako. Auzo bakoitzak **lau saltoki parte** hartzaile izan beharko ditu.

12. Saltoki irabazlea epaimahai ofizial batek aukeratuko du eta saria abenduaren 17an, astelehena, erabakiko da. Irabazleek erakusleioa mantendu beharko dute 2019ko urtarrilaren 5era arte.

13. ERAKUSLEHIO POPULARREAN, irabazlea epaimahai ofizial aukeratuko du botazio popularrean boto gehien dauzkaten 5 erakusleihen artean.

14. ERAKUSLEIHO POPULARREN bozketa abenduaren 11tik, 16ra arte, 00:00h arte izango da San Sebastian Shops-eko webgunearen bitartez www.sansebastianshops.com.

Boto bakarra baimenduko da partaideko.

15. Apelazio aukerarik gabeko erabakia abenduaren 19an, asteazkena, 20:30-tan jakingo da lehiaketa amaitze egunean.


16. Epaimahai ofiziala horrela erabakitzen badu, kategoriaren bat sariturik gabe geldituko da.

17. Lehiaketan parte-hartzeak oinarri hauen onarpena suposatzen du, hala nola erakundeak egin ditzakeen aldaketak, beti kausa justifikatua izango duena.

18. San Sebastian Shops-ek lehiaketa luzatzeko eskubidea gordetzen du asoziazioa horrela uste badu.

19. Datuen tratamendua: 2018ko maiatzaren 25eko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrari jarraiki (DBEO), jakin ezazu zure borondatez eman dituzun datu pertsonalak **“San Sebastián Shops Donostia, Asociación de Asociaciones de Comerciantes de Donostia”** jabetzako fitxategi misto batean sartu ditugula. Datuak zozketan parte har dezazun kudeatzeko erabiliko ditugu, baita Plataformak antolatutako jardueri buruzko informazioa, ohiko postaz edo posta elektronikoz, bidaltzeko ere. Datuak kontsultatzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko, eta horien kontra egiteko jo helbide honetara, Elkano kalea 4-1^a esk. 20004 Donostia.

20. Lege aplikagarria eta jurisdikzioa: Espainiako legeak sustapenezko akzioak zuzentzen ditu. **“San Sebastián Shops Donostia, Asociación de Asociaciones de Comerciantes de Donostia”** eta, promozioaren parte hartzaileak, beste edozein foruri berariazko uko eginez,



Asociaciones Integrantes

promozioaren antolatzailearen helbidearen tribunaletara eta epaitegietara menderatzen dira

promozioan eztabaida bat egongo balu.



Asociaciones Integrantes

21. Antolakuntza erakundea “San Sebastián Shops Donostia, Asociación de Asociaciones de Comerciantes de Donostia” da, [Donostiako Udaleko Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren](#), [Donostiako Sustapena](#) eta Merkatarien Elkarteen (Centro Erdi, Zaharrear, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa, dendaSS, AUZOA eta Bretxako Merkatua) laguntzarekin, eta kolaborazio berriekin [Gipuzkoa Ostalaritza](#), [Turismo San Sebastián & Convention Bureau](#) eta [Gipuzkoako Hotelak](#), ondorioz, merkatariez gain, edizio honetan sektore berriek hartuko dute parte ostalaritza eta hotelek.